# TAO - EGOILIARRAK
## OTA - RESIDENTES

# OHIKO GALDERAK
## PREGUNTAS FRECUENTES

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-OTA-02-DN.499 //**

| | |
|---|---|
| **0572020060501**<br>**Zer egin behar dut egoiliarren TAO bereizgarria eskuratzeko?** | **0572020060501**<br>**¿Qué tengo que hacer para obtener mi distintivo de OTA residentes?** |
| Dagokion eredu normalizatua aurkeztu beharko da, zuzen beteta, eta dokumentazioa ere aurkeztu beharko da. | Debe presentar el modelo normalizado correspondiente debidamente cumplimentado y con la documentación requerida. |
| **0572020060502**<br>**Noiz emango didate bereizgarria?** | **0572020060502**<br>**¿Cuánto tiempo tardan en entregarme mi distintivo?** |
| Bereizgarria jasotzeko betekizun guztiak betez gero eta eskariaren eredu normalizatua zuzen beteta egonez gero dagokion dokumentazioarekin, bereizgarria unean bertan entregatzen da. | Si se cumplen todos los requisitos para la obtención del distintivo y se presenta el modelo normalizado de solicitud debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida el distintivo se entrega de manera inmediata. |
| **0572020060503**<br>**Zein indarraldi du bereizgarriak?** | **0572020060503**<br>**¿Qué plazo de vigencia tiene el distintivo?** |
| TAO bereizgarriak unean uneko urte naturaleko baliozkotasuna izango du.<br><br>Lehenengo urtean, eskatzaileak eskariaren eredu normalizatua aurkeztu beharko du, zuzen beteta, eta bertan eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu beharko du, eta bereizgarria berehala entregatuko zaio. Bereizgarri hori urte natural horretako abenduaren 31ra arte izango da baliozkoa.<br><br>Hurrengo urteetarako, ez da beharrezkoa izango beste eskari bat aurkeztea. Aurreko urteko abendu bukaeran, Udalak indarrean dagoen itsasgarria posta bidez bidaliko die zerbitzuaren erabiltzaile guztiei, horiek zerbitzuan baja eman ez baldin badute. Zerbitzuarekin jarraitu nahi ez baldin badute, bereizgarri berria urteko lehenengo egunetan aurkeztu beharko da Herritarren Arretarako Bulego batean edo Zerga Kudeaketako bulegoetan. | El distintivo de OTA tiene validez para el año natural en curso.<br><br>El primer año el solicitante debe presentar el modelo normalizado de solicitud debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida y se le hará entrega del distintivo de manera inmediata. Este distintivo tendrá validez hasta el 31 de diciembre del año natural.<br><br>Para los años sucesivos no es necesario presentar una nueva solicitud. A finales de diciembre del año anterior, el Ayuntamiento remite el adhesivo vigente para el año siguiente por correo a todas las personas usuarias del servicio que no hayan comunicada la baja del mismo. En caso de no haber interés en continuar con el servicio, se deberá entregar el nuevo distintivo durante los primeros días del año en alguna Oficina de Atención Ciudadana o en las oficinas de Gestión Tributaria. |
| **0572020060504**<br>**Zein kale edo eremutan egon behar da nire bizilekua TAO bereizgarria eskuratzeko?** | **0572020060504**<br>**¿En qué calles o zonas debe estar mi residencia para poder obtener un distintivo de OTA?** |
| Aparkaleku Arautuko Zerbitzuaren ordenantza arautzaileak honako bi eremuak zehaztu ditu:<br><br>**1. eremua.- Algorta:** Kanpo aldetik eremua mugatzen duten kale hauek, atxikitako planoaren arabera: Telletxe, Maria Goiri (kanpoan geratzen da), Benturillena (kanpoan geratzen da), Arrigunagako jaitsiera (kanpoan geratzen da), Andres Cortina, Algortako Etorbidea (Alango barne), Alangobarri, Euskalherria, Bolue, Salsidu, Sarrikobaso eta Telletxe kaleak. Zerrenda horretatik kanpo geratzen dira Juan Bautista Zabala eta Torrene kaleak, Juan Bautista Zabala eta Algortako etorbidearen arteko zatian, oinezkoentzat izango direlarik.<br><br>**2. eremua.- Areeta:** Kanpo aldetik eremua mugatzen duten kale hauek, espedienteari erantsitako planoaren arabera: Novia Salcedo, Ibaiondo, Aurrezki Kutxa, Mesedeak, Pinueta, Zugazarte (kanpoan geratzen da), Barria, Arieta, Urkixo, Evaristo Txurruka eta Novia Salcedo kaleak. Zerrenda honetatik baztertuko dira Andres Larrazabal kalea (Kale Nagusiaren eta Mesedeetako Kalearen arteko tartean) eta Paulino Mendibil kalea (Adiskidetasun eta Bidearte kaleen arteko tartean) eta Ibaiondo kalea, oinezkoentzako kaleak izango baitira". | La Ordenanza reguladora del Servicio de Estacionamiento Regulado – SER establece dos zonas:<br><br>**Zona 1.- Algorta:** Calles comprendidas en el ámbito limitado exteriormente por las calles Telletxe, Maria Goiri (excluida), Venturillena (excluida), Bajada de Arrigúnaga (excluida), Andrés Cortina, Algortako Etorbidea (hasta Alango incluida), Alangobarri, Euskalherria, Bolue, Salsidu, Sarrikobaso y Telletxe, según plano adjunto. Se excluyen de esta relación la calle Juan Bautista Zabala y la c./Torrene, en el tramo comprendido entre Juan Bautista Zabala y Algortako Etorbidea, que tendrán carácter peatonal.<br><br>**Zona 2.- Las Arenas:** Calles comprendidas en el ámbito limitado exteriormente por las calles Novia Salcedo, Ibaiondo, Caja de Ahorros, Mercedes, Pinar, Zugazarte (excluida), Barria, Arieta, Urkijo, Evaristo Churruca y Novia Salcedo, según plano unido al expediente. Se excluyen de esta relación la c./ Andrés Larrazabal, en el tramo comprendido entre Mayor y Mercedes, y la c./ Paulino Mendivil, en el tramo entre Amistad y Bidearte, y la c./ Ibaiondo que tendrán carácter peatonal". |
| **0572020060505**<br>**Nire bizilekua eremu horien barneko kale batean dago, baina eremu horietatik kanpo dagoen kale batean nago erroldatuta. Nire ibilgailurako bereizgarria eskuratu al dezaket?** | **0572020060505**<br>**Mi residencia está en una calle de las zonas indicadas pero estoy empadronado en otra calle que no pertenece a ninguna de las zonas ¿Puedo obtener un distintivo para mi vehículo?** |
| Ez. TAO bereizgarria eskuratzeko, eskatzailea ordenantzan jasotako eremu bateko kale batean erroldatuta egon beharko da, eta helbide hori bera agertu beharko da ibilgailuaren zirkulazio-baimenean eta eskatzailea bertan bizi beharko da modu eraginkorrean. | No. Para obtener un distintivo de OTA el solicitante debe constar empadronado en una calle que esté incluida en alguna de las zonas señaladas por la ordenanza y esa misma dirección debe ser la que conste en el permiso de circulación del vehículo y en la que se resida de manera efectiva. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-OTA-02-DN.499 //**

| | |
|---|---|
| **0572020060506** **Ordenantzan mugatutako eremu bateko kale batean erroldatuta nago, baina nire ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea beste bat da. Nire ibilgailurako bereizgarria eskuratu dezaket?** | **0572020060506** **Estoy empadronado en una calle que pertenece a una de las zonas delimitadas por la ordenanza pero la dirección que consta en el permiso de circulación de mi vehículo es diferente ¿Puedo obtener un distintivo para mi vehículo?** |
| Ez, salbuetsiz pertsona juridiko baten izenean matrikulatutako turismo baten erabilera partikularra izatea.<br>Orokorrean, TAO bereizgarria eskuratzeko, eskatzailea ordenantzan jasotako eremu bateko kale batean erroldatuta egon beharko da, eta helbide hori bera agertu beharko da ibilgailuaren zirkulazio-baimenean eta eskatzailea bertan bizi beharko da modu eraginkorrean. | No, salvo que se trate de un uso particular de un turismo que esté matriculado a nombre de una persona jurídica.<br>Con carácter general, para obtener un distintivo de OTA el solicitante debe constar empadronado en una una calle que esté incluida en alguna de las zonas señaladas por la ordenanza y esa misma dirección debe ser la que conste en el permiso de circulación del vehículo y en la que se resida de manera efectiva. |
| **0572020060507** **Ordenantzan mugatutako eremu bateko kale batean erroldatuta nago, baina erabiltzen dudan ibilgailua pertsona juridiko baten izenean dago (renting, enpresako autoa, etab.). Nire ibilgailurako bereizgarria eskuratu dezaket?** | **0572020060507** **Estoy empadronado en una calle que pertenece a una de las zonas delimitadas por la ordenanza pero el vehículo que utilizo figura a nombre de una persona jurídica (renting, coche de empresa, etc ¿Puedo obtener un distintivo para mi vehículo?** |
| Bai. Pertsona fisiko egoiliar batek modu partikularrean erabiltzen duen ibilgailu baterako TAO bereizgarria eskuratu dezake, nahiz eta ibilgailua pertsona juridiko batena izan. | Si. Una persona física residente puede obtener un distintivo de OTA para el vehículo que utiliza de forma particular pero que, sin embargo, pertenece a una persona jurídica. |
| **0572020060508** **Ez naiz Getxon bizi baina laneko, merkataritzako edo enpresako jarduera edo jarduera profesionala Getxon gauzatzen dut. Nire ibilgailurako bereizgarria eskuratu dezaket?** | **0572020060508** **No resido en Getxo pero sí desarrollo en el municipio mi actividad laboral, comercial, empresarial o profesional ¿Puedo obtener un distintivo para mi vehículo?** |
| Ez. Bereizgarriak Getxoko egoiliarrentzat dira. | No. Los distintivos son exclusivamente para vehículos que pertenezcan a personas residentes en Getxo. |
| **0572020060509** **Edozein ibilgailu motatarako eskatu daitezke bereizgarriak?** | **0572020060509** **¿Puede solicitarse el distintivo para cualquier tipo de vehículo?** |
| Ez. Bereizgarriak "turismo" motako ibilgailuetarako dira. | No. Los distintivos son exclusivamente para vehículos que pertenezcan a la clase "turismo". |
| **0572020060510** **Ba al dago beste mugarik ibilgailuetarako bereizgarria eskuratzeko?** | **0572020060510** **¿Existe alguna otra limitación respecto al vehículo para obtener el distintivo?** |
| Bai. Ibilgailuak indarrean dagoen araubidean jasotako ikuskaritza teknikoak gainditu beharko ditu. | Si. El vehículo debe haber superado las Inspecciones Técnicas exigidas por la normativa vigente. |
| **0572020060511** **Bereizgarria eskuratu dezaket TMIZ ordaindu gabe?** | **0572020060511** **¿Puedo obtener el distintivo si no he abonado el IVTM?** |
| Ez. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainketa egunean egon beharko da. | No. El solicitante debe estar al corriente del pago del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica. |
| **0572020060512** **Ba al dago mugarik bereizgarri kopuruari dagokionez?** | **0572020060512** **¿Existe alguna limitación en cuanto al número de distintivos?** |
| Bai. Orokorrean, pertsona bakoitzeko bereizgarri bat eskuratu ahal izango da, eta etxebizitza bakoitzeko bi bereizgarri. | Si. Con carácter general, se establece el límite máximo de 1 distintivo por persona y dos distintivos por domicilio. |
| **0572020060513** **Pertsona juridiko baten ibilgailu baterako egoiliarren TAO bereizgarria dut. Bigarren bereizgarri bat eskuratu dezaket nire ezkontideak, izatezko bikotekideak edo seme/alabak erabiltzen duen nire beste ibilgailurako?** | **0572020060513** **Soy titular de un distintivo de OTA residente para un vehículo que es propiedad de una persona jurídica ¿Puedo obtener un segundo distintivo para otro vehículo de mi propiedad que utiliza mi cónyuge, pareja de hecho o mi hijo/a?** |
| Ez. Egoiliarrentzako bigarren TAO bereizgarria eskuratzeko, lehenengo bereizgarriaren titulartasuna pertsona fisiko batek izan behar du. | No. La obtención de un segundo distintivo de OTA para residentes sólo es posible cuando el primer distintivo se ha concedido para un vehículo cuya titularidad pertenece a una persona física. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-OTA-02-DN.499 //**

| | |
|---|---|
| **0572020060514**<br>**Nire jabetzako ibilgailu baterako egoiliarren TAO bereizgarria dut. Bigarren bereizgarri bat eskuratu dezaket nire ezkontideak, izatezko bikotekideak edo seme/alabak erabiltzen duen nire beste ibilgailurako?** | **0572020060514**<br>**Soy titular de un distintivo de OTA residente para un vehículo mi propiedad ¿Puedo obtener un segundo distintivo para otro vehículo de mi propiedad que utiliza mi cónyuge, pareja de hecho o mi hijo/a?** |
| Bai.<br>- Eskatzen den lehenengo txartela ezin da izan pertsona juridiko baten jabetzako ibilgailu baterako.<br>- Bigarren ibilgailua bere izenean egon behar da zirkulazio-baimenean.<br>- Ibilgailuaren IAT egunean egon beharko da.<br>- Zirkulazio-baimenaren helbidea erroldako eta bizilekuko helbide bera izan behar da.<br>- Helbidea TAO eremu baten barnean egon behar da.<br>- Ibilgailua ohiko moduan erabili beharko du ezkontideak, izatezko bikotekideak edo seme/alabak.<br>- Ibilgailua ohiko moduan erabiltzen duen ezkontidea, izatezko bikotekidea edo seme/alaba helbide horretan erroldatuta egon behar da.<br>- TMIZ egunean egon beharko da. | Si.<br>- La primera tarjeta solicitada no puede ser por un vehículo que sea propiedad de una persona jurídica.<br>- El segundo vehículo debe figurar a su nombre en el permiso de circulación.<br>- El vehículo debe contar con la ITV al día.<br>- La dirección del permiso de circulación debe ser la misma dirección de empadronamiento y residencia.<br>- La dirección debe pertenece a una Zona OTA.<br>- El vehículo debe ser utilizado habitualmente por el cónyuge, pareja de hecho o hijo/a.<br>- El cónyuge, pareja de hecho o hijo/a que utiliza habitualmente el vehículo debe figurar empadronado en la citada dirección.<br>- Debe encontrarse al corriente del IVTM. |
| **0572020060515**<br>**Zer egin dezaket bereizgarria galduz gero?** | **0572020060515**<br>**¿Qué puedo hacer si he extravíado mi distintivo?** |
| Bereizgarria hondatzen edo galtzen baldin bada, Udalari horren berri eman beharko zaio. Horretarako, *TAOn baja emateko eskari* normalizatuaren eredua aurkeztu beharko da, zuzen beteta eta beharrezko dokumentazioarekin batera, eta galdutako bereizgarriaren iruzurrezko erabilera posiblearen gaineko ardura hartu beharko da. | En el caso de que se haya producido el deterioro o extravío de su distintivo deberá ponerlo en conocimiento del Ayuntamiento. Para ello deberá presentar el modelo normalizado *Solicitud de Baja OTA,* debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida, haciéndose responsable del posible uso fraudulento del distintivo extravíado. |
| **0572020060516**<br>**Ibilgailu berri bat dut. Aurreko bereizgarria erabili dezaket?** | **0572020060516**<br>**He adquirido un vehículo nuevo ¿Es válido mi distintivo anterior?** |
| Ez. Bereizgarriak ibilgailuen matrikulari lotuta daude, eta beraz, egoiliarren bereizgarria duten pertsonek, Getxoko Udalari hamabost eguneko epean jakinarazi beharko diote ibilgailua aldatu izana.<br><br>Horretarako, TAOn bajan emateko eskari normalizatuaren eredua aurkeztu beharko da, zuzen beteta eta beharrezko dokumentazioarekin batera.<br><br>Zerbitzuaren ordenantza arautzailearekin bat eginez, ibilgailuaren jabetza besterendu ondoren egoiliarren bereizgarria erabiltzen bada, arau-hauste larria gauzatuko da. Bestalde, ibilgailu-aldaketaren berri ez ematea oso arau-hauste larria da. | No. Los distintivos están asociados a la matrícula del vehículo por lo que las personas a las que les haya sido expedido un distintivo de residente tienen la obligación de comunicar al Ayuntamiento de Getxo en el plazo de 15 días los cambios de vehículo.<br><br>Para ello deberá presentar el modelo normalizado Solicitud de Baja OTA, debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida.<br><br>Conforme a la Ordenanza reguladora del servicio, utilizar el distintivo de residente una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se otorgó es considerado infracción grave. Por otro lado, el incumplimiento de la obligación de comunicar el cambio de vehículo es considerado infracción muy grave. |
| **0572020060517**<br>**Etxebizitza aldatuko dut. Aurreko bereizgarria erabili dezaket?** | **0572020060517**<br>**Voy a cambiar de domicilio ¿Es válido mi distintivo anterior?** |
| Ez. Bereizgarriak udalerriko pertsona fisiko egoiliarraren helbideari ere lotuta daude; beraz, egoiliarren bereizgarria duten pertsonek, Getxoko Udalari hamabost eguneko epean jakinarazi beharko diote helbidea aldatu izana.<br><br>Horretarako, TAOn bajan emateko eskari normalizatuaren eredua aurkeztu beharko da, zuzen beteta eta beharrezko dokumentazioarekin batera.<br><br>Zerbitzuaren ordenantza arautzailearekin bat eginez, egoiliarren bereizgarria bizileku eremutik kanpo erabiltzea, arau-hauste larria izango da. Bestalde, ibilgailu-aldaketaren berri ez ematea oso arau-hauste larria da. | No. Los distintivos de los vehículos están también asociados a la dirección de la persona física residente en el municipio, por lo que las personas a las que les haya sido expedido un distintivo de residente tienen la obligación de comunicar al Ayuntamiento de Getxo en el plazo de 15 días los cambios de domicilio.<br><br>Para ello deberá presentar el modelo normalizado Solicitud de Baja OTA, debidamente cumplimentado y con la documentación en él requerida.<br><br>Conforme a la Ordenanza reguladora del servicio, utilizar el distintivo de residente fuera de la zona de residencia correspondiente es considerado infracción grave. Por otro lado, el incumplimiento de la obligación de comunicar el cambio de vehículo es considerado infracción muy grave. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-OTA-02-DN.499 //**

| | |
|---|---|
| **0572020060518**<br>**Erabil dezaket nire bereizgarria noizean behin beste eremu batean aparkatzeko?** | **0572020060518**<br>**¿Es válido mi distintivo de residente en una zona para aparcar de forma ocasional en la otra zona?** |
| Ez. Egoiliarren bereizgarriak ordutegi mugarik gabe aparkatzeko aukera ematen du bakarrik AAZ eremuko kaleetan, erabiltzaileen etxebizitza kale horietako batean egon beharko delarik. Noizean behin beste eremu batera joanez gero, aparkalekuko tiketa eskuratu beharko da.<br><br>Zerbitzuaren ordenantza arautzailearekin bat eginez, egoiliarren bereizgarria bizileku eremutik kanpo erabiltzea arau-hauste larria izango da. | No. El distintivo para vehículos de residentes le permite estacionar sin sujeción a la limitación horaria exclusivamente en cualquiera de las calles de la Zona – SER en la que esté incluida la calle de su domicilio. Si se desplaza con carácter ocasional a otra zona deberá obtener el correspondiente ticket de aparcamiento.<br><br>Conforme a la Ordenanza reguladora del servicio, utilizar el distintivo de residente utilizar el distintivo fuera de la zona de residencia correspondiente es considerado infracción grave. |
| **0572020060519**<br>**Zenbat balio du egoiliarren TAO bereizgarriak?** | **0572020060519**<br>**¿Cuánto cuesta el distintivo de OTA residentes?** |
| Ibilgailu bakoitzaren TAO txartelaren 2020. urteko kuota 48,45 eurokoa da.<br><br>Txartela ordezkatzearren (ibilgailu-aldaketa, txartela galtzea, etab.), 4,55 euro kobratuko dira 2020an.<br><br>Txartelaren erabileran altan edo bajan ematean, zerga-kuotak hiruhileko naturalen arabera hainbanatzen dira. | La cuota anual de la Tarjeta de OTA, por cada vehículo es de 48,45 euros en el año 2020.<br><br>Por sustitución de la tarjeta (cambio de vehículo, pérdida…), se cobra una cuota de 4,55 euros en el año 2020.<br><br>En los casos de alta o baja del uso de la Tarjeta, la cuota tributaria se prorratea por trimestres naturales. |
| **0572020060520**<br>**Zerbitzuaren baja eskatuz gero, tasa hainbanatzen da?** | **0572020060520**<br>**¿Se prorratea la tasa en el caso de que solicite la baja del servicio?** |
| Bai. Alta berrien edo bajen kasuan, tasaren zerga-kuota zerbitzuan altan emandako hilabete naturalen arabera hainbanatzen da. Alta berrien kasuan, ordainagiria Udalak hainbanatuta emango da.<br><br>Bajen kasuan, interesatuak urteko kuota ordaindu beharko du eta ondoren, dagokion itzulketa kudeatuko da. Baja dela-eta, itzulketa egin behar denean, eta ordainketa zenbait epetan egin bada, itzuli beharreko kopurua azken epean ordaindu zela ulertuko da. Nahierako ordainketa edo helbideratutako ordainketa arruntaren modalitatea daukaten ordainagiriak izanik, kontuaren titularraren aginduz banku helbideratzeak ukatzeko legez ezarritako epea igaro ondoren itzuliko da bidegabeki jasotakoa. | Si. En los casos de altas nuevas, o bajas, la cuota tributaria de la tasa se prorratea por los meses naturales en los que ha estado de alta en el servicio. En los casos de alta nueva el recibo se emitirá ya prorrateado por el Ayuntamiento.<br><br>En los casos de baja, el interesado debe abonar la cuota anual y posteriormente se gestionará la devolución correspondiente. Cuando proceda la devolución por baja y se hubiera ingresado en varios plazos, se entenderá que la cantidad a devolver se ingresó en el último plazo. Tratándose de recibos acogidos a la modalidad de pago domiciliado ordinario o pago a la carta, la devolución de ingresos indebidos se realizará una vez transcurrido el plazo legalmente establecido para el rechazo de domiciliaciones bancarias por orden del titular de la cuenta. |
| **0572020060521**<br>**Tasaren betekizuna zehazteko zein data hartzen da kontuan?** | **0572020060521**<br>**¿Qué fecha se tiene en cuenta para determinar la exigencia de la tasa?** |
| TAO txartelaren tasa edo "egoiliarren ibilgailuentzako bereizgarria" urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortzen da; beraz, tasa ordaindu beharko dute egun horren aurretik TAOren baja Udalean jakinarazi ez dutenek. | La tasa por Tarjeta de OTA o "distintivo para vehículos de residentes" se devenga el día 1 de enero de cada año y por ello estarán obligados al pago de la misma quienes en esa fecha no hayan comunicado al Ayuntamiento la baja en la OTA. |
| **0572020060522**<br>**Nork ordaindu behar du tasa?** | **0572020060522**<br>**¿A quién se exige la tasa?** |
| Pertsona fisikoen izenean dauden ibilgailuen kasuan (A eta B kasuak), beti turismoaren titularrak. Pertsona juridikoen ibilgailuak direnean (C kasua), subjektu pasiboa pertsona fisiko egoiliarra izango da (ohiko gidaria). | En el caso de vehículos a nombre de persona física (casos A y B), siempre al titular del turismo. Cuando se trate de vehículos propiedad de persona jurídica (caso C), el sujeto pasivo es la persona física residente (el conductor habitual). |
| **0572020060523**<br>**Noiz ordaindu behar dut egoiliarren TAO bereizgarriaren tasa?** | **0572020060523**<br>**¿Cuándo tengo que pagar la tasa correspondiente al distintivo de OTA Residentes?** |
| Ordaindu beharreko tasa urteroko aldizkako zerga bat da, eta zergaldia urte naturalarekin bat dator.<br><br>Altaren urtean, tasa alta-eskaria aurkezteko unean ordaindu beharko da.<br><br>Hurrengo urteetan, tasa ordaintzeko data zehatzak Getxoko Udalak urtero onartuko duen zergadunen zerga-egutegi fiskalean finkatuko dira. Data horiek jakitera emango dira, zerga-egutegia BAOn eta udalaren webgunean argitaratuz (www.getxo.eus) | La tasa a abonar es un tributo periódico de carácter anual y el período impositivo coincide con el año natural.<br><br>En el año del alta, deberá abonarse la tasa en el momento de presentarse la solicitud de alta.<br><br>Para los años sucesivos, las fechas concretas en las que debe procederse al pago de la tasa están fijadas en el Calendario Fiscal del Contribuyente que en cada año apruebe el Ayuntamiento de Getxo. Se dará a conocer tales fechas mediante la publicación del Calendario Fiscal en el BOB y en la página web del Ayuntamiento www.getxo.eus |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-OTA-02-DN.499 //**

| **0572020060524**<br>**Nola ordain dezaket tasaren likidazioa?** | **0572020060524**<br>**¿Cómo puedo proceder al pago de mi liquidación de la tasa?** |
|---|---|
| Aldizkako zerga denez, Getxoko Udalak honako aukerak eskaintzen dizkie zergadunei: | Al tratarse de un tributo de carácter periódico, el Ayuntamiento de Getxo ofrece a los contribuyentes las siguientes formas de pago: |
| 1. **Helbideratu gabeko ordainketa:** Getxoko Udalak etxeetara ordainagiri bakoitzeko ordainketa-gutun bana igortzen du, bertan adierazitako epean zergadunak zuzenean eta aurrez aurre ordain dezan finantza erakundean edo modu telematikoan, entitatearen webgunearen bitartez edo Eusko Jaurlaritzako ordainketa pasabidearen bitartez. | 1. **Pago no Domiciliado:** El Ayuntamiento de Getxo remite al domicilio una carta de pago por cada recibo para que el contribuyente la abone en el plazo que en ella se indica, bien directamente de forma presencial en una de las entidad financieras asociadas, bien de forma telemática a través de la web de su entidad o través de la pasarela de pagos del Gobierno Vasco. |
| 2. **Ohiko helbideratutako ordainketa:** Zergadunak berariaz eskatzen baldin badu *Aldizkako Zergen helbideratzerako ohiko dokumentua* aurkeztearen bitartez eta bertan jasotako dokumentazioarekin batera, Getxoko Udalak zergaren ordainagiria epe bakarrean kobratuko du zergadunak egutegi fiskalean urte bakoitzerako adierazitako epean. | 2. **Pago Domiciliado Ordinario:** Si el contribuyente lo solicita expresamente mediante la presentación del *Documento normalizado Domiciliación de Tributos periódicos,* junto con la documentación requerida en él, el Ayuntamiento de Getxo procederá a girar el recibo del impuesto en un único plazo en el número de cuenta que haya sido indicado por el contribuyente en las fechas que en cada año señale el Calendario Fiscal. |
| 3. **Helbideratutako zatikako ordainketa, interesik gabe, "Nahieran" izenekoa:** Zergadunak berariaz eskatzen baldin badu *Aldizkako Zergen helbideratzerako ohiko dokumentua* aurkeztu eta bertan jasotako dokumentazioarekin batera, Getxoko Udalak zergaren ordainagiria epe bakarrean kobratuko du zergadunak egutegi fiskalean urte bakoitzerako aukeratutako epeetan (4 epe eta 2 epe). | 3. **Pago domiciliado fraccionado sin intereses denominado Pago a la Carta**: Si el contribuyente lo solicita expresamente mediante la presentación del *Documento normalizado Domiciliación de Tributos periódicos,* junto con la documentación requerida en él, el Ayuntamiento de Getxo procederá a girar el recibo del impuesto en los plazos elegidos (4 plazos y 2 plazos), en el número de cuenta que haya sido indicado por el contribuyente en las fechas que en cada año señale el Calendario Fiscal. |
| Erroldako altari dagokion zergaldian, zergadunak ezingo du helbideratutako ordainketa modalitatea aukeratu, eta zerga ordaintzeko, erroldan altan ematean jasotzen duen ordainketa-eskutitza erabili beharko du. Erroldan altan ematen den zergaldian aurkezten diren helbideratze-eskariak kontuan hartuko dira altaren hurrengoko zergaldian. | En el período impositivo correspondiente al alta en el padrón, el contribuyente no podrá acogerse a las modalidades de pago domiciliado debiendo abonar el impuesto utilizando la carta de pago que se le entrega con ocasión del alta en el padrón. Las solicitudes de domiciliación que se presenten en el período impositivo correspondiente al alta en el padrón serán tenidas en cuenta para el período impositivo siguiente al del alta. |
| **0572020060525**<br>**Ordainagiria etxean jakinaraziko didazue?** | **0572020060525**<br>**¿Me notificáis el recibo a mi domicilio?** |
| Altan emandako urtean, jakinarazpena interesatuak egindako eskariarekin batera egiten da. | En el año correspondiente al alta, la notificación se produce con ocasión de la solicitud realizada por el interesado. |
| Hurrengo urteetan likidazioak ez zaizkio banaka zergadun bakoitzari jakinaraziko; aitzitik, modu kolektiboan jakinaraziko dira, BAOn iragarki bat argitaratuz. Hala, zergaren errolda onartu izana eta zergadunak tasa borondatezko aldian ordaintzeko datak ere jakinaraziko dira. | En los años sucesivos, la notificación de las liquidaciones ya no se realiza de forma individual a cada contribuyente sino de forma colectiva, mediante publicación de un anuncio en el BOB indicando la aprobación del padrón del tributo y las fechas en las que el contribuyente deberá proceder al pago de la tasa en período voluntario. |
| Zergadunaren betebeharra errazteko, Getxoko Udalak ordainketa helbideratua hautatu ez dutenen helbide fiskalera ordainketa-gutunak igorriko ditu, horiei esker tasa atxikitako finantza erakundeetan ordaindu ahal izango da. | Para facilitar esta obligación del contribuyente, el Ayuntamiento de Getxo remite al domicilio fiscal de aquellos que no hayan optado por el pago domiciliado, cartas de pago que le permitirán el abono de la tasa en las entidades financieras adheridas. |
| Jakinarazteko betebeharra BAOn iragarki bat argitaratuz bete denez, aipatutako ordainketa-gutunak ez jasotzeak ez du jakinarazpen akatsik eragingo eta, horrenbestez, zergadunaren betebeharra izango da aipatutako dokumentua Getxoko Udalaren Zerga Alorreko Arreta Zerbitzuan lortzea, tasa borondatezko aldian ordaindu ahal izateko. | Debido a que la obligación de notificar ha sido cumplida a través del anuncio en el BOB, la no recepción de las cartas de pago indicadas no supone un defecto de notificación y, por tanto, será obligación del contribuyente obtener el citado documento en el servicio de atención tributaria del Ayuntamiento de Getxo para proceder al pago de la tasa en período voluntario. |
| **0572020060526**<br>**Likidazioak zein helbidetan jakinaraziko zaizkit, edo ordainketa-gutunak nora igorriko zaizkit?** | **0572020060526**<br>**¿A qué dirección se me notifican las liquidaciones o se me remiten las cartas de pago?** |
| Tasaren erroldan altari dagozkion likidazioak eta ondorengo ordainketa-gutunak helbide fiskalera igorriko dira. | Las liquidaciones correspondientes al alta en el padrón de la tasa y las sucesivas cartas de pago se remiten al domicilio fiscal. |
| Helbide hori Getxoko Udalaren Zerga Alorreko Arreta Zerbitzuan kontsultatu daiteke. Helbidea aldatu nahi baduzu, *Zerga helbidearen aldaketa* izeneko agiria aurkeztu behar duzu Erregistro Nagusian, eskatutako dokumentazioarekin batera. | Puede consultar dicha dirección en el Servicio de Atención Tributaria del Ayuntamiento de Getxo. Si desea modificar dicha dirección deberá presentar en el Registro General Documento Normalizado denominado *Cambio de Dirección Tributaria*, junto con la documentación requerida. |